

ORBEL JOKUK 2024 GALDERA-ERANTZUNAK lehen astea

- 1.-Azkoitian Alde Zaharrea non dago mingranondo bat? **Plaza Berrin , apaiz etxearen ezker aldean.**
- 2.- Jose Maria Iparragirrek azkoitiar bati zortziko bat egin zion. Nori? **Jose Frantzisko Aizkibeli**
- 3.-Madarixako eta Aste Santutako pausoak zaharberitze lanen buru zein ibili zen? **Sonia Sanz**
- 4.-Zenbat metroko perimetroa zeukan Munoaundiko harresiak? **900 metro**
- 5.-Herrian 50-60-70 hamarkadetan hiru tokitan montatzen zen zirku ibiltaria, non?(Gutxienez 2 asmatu behar dira) **Gaurko Julio Urkixo kalean Lidl eta Xubi lantegi ileran; Txalon erreka auzoan, eta Alzibar etorbidean ,Anaitasuna futbol zelai ohian.**
- 6.-Nor izan zen azken emakumea azokara behorra eta karroa hartuta etortzen zena? **Antonia Astigarraga**
- 7.- Hilarioren txokoa herriko ze auzoetan dago? **Bastarrikalden**
- 8.- Norena zen zaldikia saltzen zen harategia? **Bristolnekuna.**
- 9.- Erditze ona izateko zein bi lekutan pizten zitzaion Amabirjinari kandela?(Gutxienez bat asmatu behar) **Errezil etxeke aurrekaldean eta Forkada etxeke aldameneko horman.**
- 10.- Antoni, Antoni bertsoak zein zartzuelatan abestu ziren Olimpia aretoan? **Izoko aberatsan.**
- 11.- Kuku Herriko lehen eta bigarren iturrien artean aurkitzen den baserriaren izena? **Aranguren-Etxeberria (Angun Etxeberri).**
- 12.- Herrian bi eguzki erloju daude, bata margotu berria eta bestea margotu bat hartuko lukeena, non?(Gutxienez bat asmatu behar) **Lehena Txurruka etxearen aurrekaldean, eta bestea, parroko arkupeko pasabidearen teilatuaren goian.**
- 13.- Azkoitian orain dela 60-70 urte bazen taxidermista bat, nor ? **Gilermo Sudupe "Pattakie"**
- 14.- Txori-denda bat bazuen,Martin Txikirrinek, zein kaletan? **San Martin kalean.**
- 15.- Zer izen zeukan aurretik Ixidro (Isidro) erretegiak? **Vega/Beganekeue.**